

# HARRI MAGIKOAREN BILA

*BACK TO GAYA*



Harri Magikoaren Bila

BARTON FILMS

## Sinopsia

Gaya ametsetako mundua da eta gizakiaren antza handia duten bizidunak bizi dira bertan. Gayatarrak, inguru lurragarrian bizi dira, paisaia bikain eta koloretsuetan.

Gayatarrak, arazo larri baten aurrean aurkitzen dira, beren herriaren amaiera gertu dago, eta egoera honi aurre egin beharko diote nola edo ahala. Gaizkileren batek, Dalamita harri magikoa ostu du, harri hori gabe, Gaya herria betirako desagertuko da. Boo eta Zino, bi gayatar, misio arriskutsu batean jardungo dira harria berreskuratu eta berriro ere herrira ekartzeko.

Abenturaz betetako bidaiak, beste mundu batera eramango ditu, mundu beldurgarri eta arrotz batetara- gizakion errealitatera-.

Herria utzi bezain azkar, Gayako bikotea eta Alanta, alkatearen alaba ausarta, gauza sinesgaitz batetaz ohartzen dira: telebista programa batetako izarrak dira. Horrela, 3 abenturazaleak, beren herria, gidoigile sormentsu baten ideia besterik ez dela jakingo dute; Gaya herria, telebistako telesaio hutsa da.

3 abenturazale txikiek, ez dute gizakiaren bitxikerietan erreparatzeko asti handirik. Azken finean, "Dalamita" harriaren misterioa ebatzi behar dute. Protagonistak, berehala erantzun beharreko 3 galdera garrantzitsu dituzte: Nork ostu du Dalamita? Eta zergatik? Nola lortu zuten hasiera batean Gaya-ra sartzea?

## Argumentua

Albert DrollingerI telebista gidoigilea da “Boo eta Zino” telesailoaren sortzailea. Iraupen luzeko telebista programa hau, Gaya lurralde imaginarioan kokatuta dago. Gayatarrak, gizokiaren antza handia daukaten bizidunak dira. Boo, tramankulu arraroen asmatzaile da. Zoritxarrez, askotan bere laguna den Zinoren itzalpean gelditzen da beti. Zino, ez da erraldoi jantzia, baina izugarri ona da bere burua auto promozionatzen.

Boo eta Zino, beti prest daude burrukarako Galger, Zeck eta Brampt 3 etsai Snurken kontra bada. Galger, Snurken burua da, Zeck ez da aingerutxo bat, baina bihotz onekoa da eta Brampfek aldiz, helburu bakarra du, bere zorro handia asetzea.

Gayatarrak eta Snurkak auto lasterketa arriskutsu batean parte hartu behar dute. Snurkak, trikimailu guztiak egiteko prest daude lasterketa irabazteko. Alkateak, sari bezala bere alaba ederraren muxua eskaini du irabazlearentzat. Alaba Alanta, ez dago sariarekin ados, eta bere buruarengan asko sinesten duenez, berak ere auto lasterketan parte hartzea erabakitzen du. Baina Galgerrek trimimailu gaizto bat prestatu du, non bat batean balaztatzerara behartuta ikuten da Alanta. Nahiz eta Snuktak ahalegin handiak egin dituzten, beti bezala Boo eta Zino atera dira garaile.

N. Icely zientzilariari bere telebistako saioa kendu diote, “Boo eta Zino” telesaiari lekua uzteko. Mendekatzeko, makina berezi bat asmatu du “fantasto-transomatic”, bere helburua Dalamita harri magikoa ostu eta gizakion dimentsiora ekartzea da. Horrela Gaya herria bizitza energia iturririk gabe utziko du.

Zientzilariak maltzurak apropos sortutako ekaitzean, Snurkak harri magikoa hartzen dute, baina harriarekin batera inolako arrastorik utzi gabe desagertzen dira. Mundu errealerara salto egin dute Snurkak.

Gaya herria galdua dago Dalamitarik gabe. Boo, Zino eta Alanta harri magikoaren bila joatea erabakitzen dute, N.Icely zientzilariak sortutako energia eremuaz baliatzen dira Harriaren bide berdina jarraitzeko.

Behin telebistako pantaila zeharkatuta, 6 Gayatarrak berezi egiten dira, eta elkarren arteko kontaktua galtzen dute. 30 zentimetro eskas dituzten pertsonaia hauentzako, gure

Harri Magikoaren Bila

errealitatea erraldoiez betetako mundu arrotz bat da. Snurksak, iaia ume batek jostailu bihurtzen dira, eta Boo eta Zino ozta ozta ateratzen dira onik apurtutako pilota batetik, eta Alantarekin, arratoi erraldoi batzue eraso latza pairatzen dute estolda batean.

Taberna batean Telebistako berriei esker, Gayako egoeraz jakiten dute. Koloreak betirako alde egin dute herriko kaleetatik. Tabernako jabeak, Susik, erreportaia ikusten ari da ere, eta Snurkak ikusten dituenen, berehala telebista katez aldatu eta, eta mutil laguna Freden laguntzaz 3 lagunak bahitzen ditu, beraien truke dirua lortzeko.

Boo, Zino eta Alantak, Snurkekin topo egiten dute, kaiola batean daude bahiturik. Zinok, bertan utzi nahi ditu baina baina beste biek ez dute berdin pentsatzen eta kostata baina Zino konbentzitzen dute. Azkenean 3 bahituak askatzea lortzen dute Susi eta Fred garaitu ondoren. Aspaldiko partez, 6 gayatarrak elkartzen dira. Galgerren etsai nagusiak, Boo eta Zino izan dira beti. Horregatik ez dago oso pozik ez baitu Boo lider bezala onartu nahi. Arazoari aurre egiteko, Alanta taldeko burua izatea adosten dute.

Gayatarrak, beraien egilearengana jotzen dute dituzten arazoei aurre egiteko. Snurkek harri magikoa daukate, baina inork ez daki Gayara nola bueltatu. Albert, beraien egilea, harrituta gelditzen da bere aurrean berak asmatutako pertsonaiak ikusterakoan, eta ez daki nola lagundu.

Justu une horretan bertan, N.Icely zientzilaria agertzen da eta Albert, Alanta eta 3 Snurkak bahitzen ditu. Boo eta Zino bakarrik gelditzen dira, zoriaren eskuetan. Zientzilaria laborategira iristea lortzen dute, aspaldi utzitako lantegi batean dago. Pentsatu dituen egitasmo maltzur guztiak betetzeko zorian dago zientzilaria bi gayatar ausartak agertzerakoan, N.Icely irakasleak telebista katera bueltatu nahi du nola edo ahala.

Zientzilaria, prest dago Boo eta Zinoren erasoari aurre egiteko. Arma itzela sortu du, Yakatoshi 3000, Gayatarren kontrako azken guda irabazteko. Gai izando al dira gure heroiak eta Snurkak indarrak batu eta egoera latzari aurre egiteko?

## Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: Lenard Fritz Krawinkel y Holger Tappe

Produzio zuzendaria: Holger Tappe

Sormen zuzendaria: Hercules Bellville

Zuzendari exekutiboa: Stefan Mischke y Stephan Mallmann

Gidoia: Jan Berger, Bob Shaw, Don McEnery

Muntaia: Alex Soskin

Animazioa: Fabian A. Müller

Musika: Michael Kamen

Pertsonaien diseinua: Oliver Kurth

## Datu teknikoak:

Formatua: 3Dko animazio filmea

Iraupena: 95 minutu

Luzera: 2.645mt. - 35 mm. -

## Banatzailea:



Barton Films, S.L

C/Uribitarte 8, 4º DCHA.A

48001 Bilbao - SPAIN

TLF. +34944240559

FAX.+34944238957

E-mail. [bartonfilms@bartonfilms.com](mailto:bartonfilms@bartonfilms.com)

[www.bartonfilms.com](http://www.bartonfilms.com)

Harri Magikoaren Bila

BARTON FILMS

5/11

## Prensa arduraduna:



GOROSTILANDA, S.L.

GOROSTILANDA,SL

C/Uribitarte, 8 4ºDcha.B

48001 Bilbao – Spain

TLF:+34944352848

FAX:+34944352849

E-MAIL: **prensa@gorostilanda.com**

[www.gorostilanda.com](http://www.gorostilanda.com)

[www.backtogaya.de](http://www.backtogaya.de)

## Zinemaldi internazionalak

\* 42º FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE GIJÓN 2004

Les Enfants Terribles atala

\*BASAURIKO NAZIOARTEKO ANIMAZIO ZINEMALDIA  
(ANIMABASAURI ) 2005

Luzemetraia onenari saria

\* FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XVII ASTEA  
2006

## Zuzendarien biografia eta filmografia:

LENARD F. KRAWINKEL y HOLGER TAPPE

### LENARD F. KRAWINKELen biografia

Lenard Fritz Krawinkel 1966ko urtarrilaren 23an jaio zen Hanoverren, Alemania. Medikuntza ikasketak burutu zituen, Budapest, Genova eta Berlinen. 1990 telebista erregionaletan lanean hasi zen. 1993 diru-laguntza edo beka bat Portu zuen EEBBetara joateko, eta bertan Hollywooden "Etertainment Tonight" telebista saioan egin zuen lan.

1993tik 1996ra telebista zuzendaritza eta zinema ikasi zuen Munich eta Pariseko zine eskoletan. Berehala hasi zen bere lehenengo laburmetrai eta dokumentalak egiten, baiata iragarki batzuk ere, (Disney) eta musika bideoak ikasle zen bitartean. 1997an, telebistarako 3 filma egin zituen.

2000.urtean, Krawinkelek zinerako lehenengo filma idatzi eta zuzendu zuen "Sumo Bruno". Geroztik, "Harri magikoaren bila" filmean lanean izan da "Ambien Entertainment" produktorekin.

### LENARD F. KRAWINKELen filmografia:

Zwei Weihnachtshunde (2005) telebistarako animazio teleaioak

Back to Gaya (2004) animazio luzemetraia

Sumo Bruno (2000) luzemetraia

"First Love - Die große Liebe" (1997) telebistarako 3 teleaio (45 min)

Kreuz & quer (1996) antzinako elizari buruzko isorio laburrak Tote vom anderen Ufer, Der (1996)

Pack mich (1995) laburmetraia

Wahlverwandtschaften (1994) laburmetraia

### **HOLGER TAPPEen biografia:**

Holger Tappe 1969an jaio zen eta argazkigintza ikasketak buruzu zituen Berlineko argazkigintza eskolan. Gero "hedabide berrien diseinua" ikasi zuen Hanoverreko zientzia unibertsitatean. Argazkilari bezala leku askotan egin du lan, horien artean, Melitta eta Baseen. 1995tik aurrera zuzendari eta kamara bezala egin zuen lan, eta Volkswagenean antzerako iragiak egiten zituen. Bideojokuak, proiektzio erraldoiak eta aurkezpen komertzialak burutu zituen (CeBIT Home, EXPO 2000).

1999an Ambient Entertainment sortu zuen eta bera da zuzendaria, geroztik burubelarri izan da "Harri magikoaren bila" luzemetraian.

### **HOLGER TAPPEren Tappeen filmografia**

**Urmel aus dem Eis (2006)** zuzendari eta produkzio lanak

**Back to Gaya (2004)** zuzendari eta produkzio lanak

## Zuzendari eta produkzio zuzendariaren hitz batzuk:

Guzia amets batekin hasi zen...hori dio Lenard Krawinkelek, filmearen zuzendariak. "Holger Tappe eta ni lagun zaharrak gara, Hanoverrekoa naiz ni baina Zurichen bizi nintzen Holgerrek bere enpresa sortu zuenean, horregatik Hanoverrera bueltatu nintzen "Harri magikoaren bila" proiektuan lan egiteko.

"Nork ordainduko du pre-produkziorako behar den dirutza guztia? Gutxienez urte bat beharko dugu babestzailea lortu eta gure enpresa eta trailera egiteko" Hori izan zen Lenard Krawinkelek esan zuen lehenengo gauza.

"Alemanian, produktora gutxi daude Holgel bezala pentsatzen dutenak "Guztiz sinesten dut proiektu honetan, eta prest nago lehen gastuak nire sakeletik ordaintzeko" esan zuen Holgerrek. Gaur egun ere, arazoak ditugu gure enpresako kide potentzialei buru proiektuan sinestarazteko. Holger hasieratik sinestu zuen proiektu honetan "arrakastatsua izanen da" esaten zuen, Holgel gabe, filme honek ez zuen argia ikusiko!"

Lenarden hitz hauen aurrean, azkar erantzun zuen Holger Tappek: "Lenard Krawinkel nahi dituen ate guztiak irekitzeko gai den pertsona da! Normalean, produktora alemaniarrek ez dira ausartak izaten, eta dirua ematerako orduan proiektu ziurretara jotzen dute. Ia ezinezkoa da horrelako proiektu berritzaile batean patrozinoak lortzea.

Harri Magikoaren Bila

BARTON FILMS

11/11